

ELISA LONCON ANTILEO: Txileko
Konstituzioa idatziko duen
hizkuntzalari maputxea > 4

ASTEARI ZEHARKA BEGIRA
Euskal Herrikoa izatea kaka
zaharra bihurtu al dugu? **RAMON SOLA** > 9

2021eko uztailaren 10a | XV. urtea • 730. zenbakia
0,50 euro

GAUR8 

mila leiho zabalik
www.gaur8.info



**DONOSTIAKO ALDE ZAHARRA; LEHEN,
ORAIN ETA GERO? > 10** Gorka RUBIO | FOKU



4



14

Profila: Elisa Loncon Antileo,
Txileko Konstituzioa idatziko
duen hizkuntzalari maputxea 04

Ikusmira: Identitatearen aldeko
txerto dosia Argentinan 07

Nola eta norentzat ari da
antzaldatzen Donostiako Alde
Zaharra? 10

«Eta maita herria...» pastoralak,
bigarren atala 14

Elkarrizketa: Adolfo Lacunza,
argazkilaria 18

Juantxo Egañaren behatxulotik 23



SINADURAK:

03 **Iñaki Soto:** Lan antolakuntzaz
hitz egiteko une aproposa da

08 **Oier Gorosabel:** Lurrikara
osteopatikoa

09 **Ramon Sola:** Euskal Herrikoa
izatea kaka zaharra bihurtu al
dugu?

13 **Alai Zubimendi**

16 **Gorka Etxebarria Dueñas:**
Demokrazia kontsolidatua


17 **Iker Barandiaran:**
«Zailtasuna»

21 **Nekane Zinkunegi**

Barandiaran: Irten bidera,
zoriaren aurka

21 **Joxean Agirre:** Maniak

30 **Garazi Goia:** Ez da fikzioa



18

{ datorrena } Iñaki Soto

Lan antolakuntzaz hitz egiteko une aproposa da

Lanaren etorkizuna gaurkotasun handiko gaia da. Ez bakarrik pandemiaren ondorioz etor daitekeen krisi ekonomikoaren ikuspegitik, alegia, langabeziaren ikuspuntutik, baita bizitza partikularraren eta gizarte antolaketaren aldetik ere. Joe Bidenen «Pay Them More!» esalditik hasi eta telelanari buruzko gogoetearaino, lana etengabeko eztabaida gaia da gaur egun. Ez da gutxiagorako, langileon bizitzan suposatzen duena kontuan hartuz gero.

Adi, ez naiz lanaren kontzeptuaz ari, baizik eta lanaren antolaketaz. Gero eta gogoeta gehiago entzuten dira lan jarduerari buruz, ez soilik ikuspuntu teoriko, sindikal edo enpresarialetik. Duela gutxi arte oso urrutikoak ziruditen zenbait errealitate honezkero hemen daude. Jakina, lana teoria ekonomiko eta sozial handietan agertzen da, marxismoan, adibidez.

Lanagatik, adimen artifizialari buruz irakurri behar izan dut azkenaldian, eta honek izango duen eragina izugarria da. Ugaritasunaren teoriak zenbait urte barru lan egitea ez dela ezinbestekoa izango diote. Makinek, robotek edo adimen artifizialak berak gaur egun gizakiok egiten ditugun lan gehienak egin ahal izango dituzte. Haien ustez, benetako eztabaida aberastasunaren banaketarena izango omen da.

Adi, beren burua erreskatatzeko ate bat dirudi; sistema kapitalista bideragarria ez dela eta zibilizazio mailan suntsitzailea izan daitekeela konturatu direnentzat atzeko ate erretoriko bat. Pozoia eta antidotoa dituztelakoan lasaitzen dira. Aberatsak dira, eta ez zaie gustatzen aberatsak izatea. Barkatu, aberatsak izatea maite dute baina ez dute beraiek hain aberatsak izatearen arrazoia gehiengoaren pobrezia dela onartu nahi.

Kontuan izan behar da roboten zergei buruz eztabaidatzen duten aditu hauek sarri bankuetako zuzendarie-

kin partekatzen dutela mahaia, besteak beste. Uneotan, bankari hauek, mozkin ikaragarriak lortu arren, milaka langile kaleratzea erabaki dute. Pertsona eta korporazio horiek mozkinengatik ordaintzen ez dituzten zergak robotengatik ordainduko dituztela sinistea ez da erraza. Are zailagoa da sinistea etorkizunean mozkin horiek banatuko dituztela, onurak dituztenean enpleguari eusteko borondaterik erakutsi ez dutenean. Gauza bat da uto-pikoak izatea eta beste bat fededunak izatea. Hirugarren aukera gainerako guztiok ergelak garena sinistea da.

Langileon egunerokotasunetik gertuago, etxetik lan egiteko esperientzia bitxia, interesgarria edo traumatikoa izan da. Baldintzen arabera eta bizitza nola antolatu duzun kontuan hartuta, telelana lasaitua, aukera edo zigorra izan daiteke. Adibidez, bulegora ez itzultzeagatik

Alde batetik, bulegora ez itzultzeagatik lana uzteko prest dauden pertsonen buruz hitz egiten digute. Beste aldetik, bulegora ez badira itzultzen erotu egingo direla diotenak entzuten ditugu

lana uzten duten pertsonen buruz ari diren erreportaje pila bat topatu ditzakegu. Aldi berean, gero eta jende gehiagori entzuten diogu bulegora ez badira itzultzen erotu egingo direla.

Telelana ala bulegoa. Eztabaida gehienak parametro horietan planteatzen ditugu, zero baturako joko gisa. Irtenbide gehienak, ordea, hibridoak izaten dira. Aurrekoaren kalteak eta miseriak onartu ditzagun –presentismoa, adibidez–, azaldu ditzagun guztion interesak eta beharrak –kontziliazioa, nabarmen–, izan gaitezen kooperatiboak eta eraiki ditzagun alternatibak. Ondo lan egin ahal izateko, alegia, ez robotak eta ez bankariak bezala. Kidetasunez, bizitzeko eta eraikitzeko. •

{ profila }

ELISA LONCON ANTILEO

Txileko Konstituzioa idatziko duen hizkuntzalari maputxea

Maidar lantzi Goienetxe

Sinbolismoz betetako erabakia izan da emakume maputxe indigena bat Txileko Konstituzioa idatziko duen Biltzarraren presidente aukeratzea. Antolakunde hori osatzen duten 155 kideek joan den igandean hautatu zuten, gehiengo osoz, Elisa Loncon Antileo, 58 urteko irakasle, hizkuntzalari eta aktibista, *carta magna* berria osatzeko prozesua gidatzeko. Behar zituen 78 atxikimenduak erraz gaindituz, bigarren itzulian 96 aldeko boto lortu zituen, indigenenak, ezker politikoarenak eta independente aurrerakoiarenak.

Biltzarraren misioa ez da makala: Augusto Pinochet-en diktaduratik (1973-1990) datorren gaur egungo Konstituzioa ordezkatzeko duen oinarritzko lege berria idaztea. Orain indarrean den honek, bertzeak bertze, ura, hezkuntza eta pentsioak pribatizatu ditu eta sektore ugari gaitzesten dute.


«Maputxe nazioak –Txileko etnia indigenarik handiena– egindako dei honetan konfiantza eta ametsak jarri dituzten koalizio ugari babesa eskertu nahi diet, emakume maputxe baten alde bozkatzegatik, herri honen historia aldatzeko», adierazi zuen Lonconek Biltzarraren inaugurazioan, lehenbizi mapudungun hizkuntzan eta gero gaztelaniaz, ukabila altxatuta. Ekitaldia Santiagoko Kongresu Nazional zaharrean egin zen eta herritar anitz atera ziren kalera, besta giroan eta kolektibo ugari deituta: indigenak, sektore profesionalak, ikasleak eta politikariak bildu ziren euren eskaerak prozesu konstituziogilean aintzat har ditzaten eskatzeko.

HERRIALDEA ERALDATZEKO ASMOA

«Gurekin mintza daiteke, ez diezagutela beldurrik izan, izuaren politika ezarri baita. Hautagai indigena maputxe bat ezartzen denean aurreiritzi anitz sortzen dira. Hortaz, mito horietaz as-



Elisa Loncon Antileo, Txileko Biltzar Konstituziogilearen presidente izendatu zuten ekitaldian, bandera maputxearekin.
Javier TORRES | AFP



katzeko eta baldintza beretan erlazio-natzeko dei bat ere bada hau», agertu zuen berriki Lonconek “La Tercera” egunkari txiletarrarekin egindako elkarrizketa batean. «Biltzar Konstituziogile honek herrialdea eraldatzeko du, eta nazio eta kultur anitzekoa bilakatu. Herrialde honek ez ditu emakumeen eskubideak zapalduko eta ama lurra eta haurrak zainduko ditu», aldarrikatu zuen ekitaldian.

«Maputxe herria, ikusezin bihurtua eta zapaldua, kartzela ugaritan banatutako hainbat presorekin, harro egon daiteke», erantsi zuen, eta haien askatasuna eskatu zuen, baita 2019ko protesta sozialetan atxilotutako lagunena ere. «Preso politiko» izendatu zituen. Eta erran zuen gai horiek landuko zizutuztela biltzarraren bigarren saioan.

Ahuldutako eskuin batekin –155 eserlekuetatik 38 soilik eskuratu ditu– eta hautagai independenteen gorakadarekin –gehienak aurrerakoiak– Biltzarrak krisi sozial eta instituzionalak gogor kolpatutako herri bat bideratzea izanen du xede.

AURRENEKO BILTZAR PAREKIDEA

Elisa Lonconek Biltzarrean jatorritzko herrientzat gordetako 17 eserlekuetako bat betetzen du. Zazpi aulki maputxe-entzat dira, bi aimarentzat, eta gainontzeko herriek –kawesqar, rapanui, jagan, kitxua, atacameño, diagita, colla eta chango– ordezkari bana dute. Euren eskaeren artean daude nazio ugari-ko estatu bat sortzea, euren autonomia eta eskubideak onartuko dituen, lur-rrari dagozkion kontuetan bermeak izatea, eta euren kultura eta hizkuntza errespetatzea.

«Gai handia da hau, lantzea kostako dena eta erreparazio historiko handia beharko duena. Konplexua da, jakina, jabetza eskubideak ukitzen dituelako. Baina funtsezkoa da. Zeelanda Berriaren eta Kanadaren ereduak dira interesgarrienak», proposatu zuen duela aste batzuk Juan Pablo Luna Zientzia Politikoetako doktoreak BBCrekin elkarrizketan. Txile eta Uruguai dira Latinoamerikan herri indigenak espresuki onartzen ez dituen konstituzioa duten herrialde gutxietako batzuk. Bertze muturrean daude Bolivia eta Ekuador. Horiek, jatorritzko herriak aitortzeaz gain, estatuaren nazio anitzeko izaera sendotzearen alde egin dute euren konstituzioetan.

Txileko prozesu konstituziogilea 2019an jaio zen alderdi politikoen akordio batetik, azken hiru hamarka-



detako krisi sozialik handiena baretzeko asmoz. Urte hartako urrian lehertu zen krisia, eredu sozioekonomiko bidezkoago baten aldeko martxa erraldoiekin. 30 lagun hil eta milaka pertsona zauritu ziren horietan.

Orain, Biltzarrak gehienez urtebetez egingen du lan *carta magna* berri bat prestatzen. Proposamena 2022an bozkatuko dute, derrigorrezko botoa ezarrita, eta txiletarrek onartu edo baztertu egingen dute. Munduan konstituzio bat idatziko duen lehendabiziko antolakunde parekidea izanen da Biltzarra eta herri indigenek parte hartuko duten Txileko lehena. Bertan, herritarren %12,8 dira indigenak, baina inoiz ez dira aitortuak izan oinarritzko legedian.

Oraindik ez daude definituak Biltzarraren presidenteak izanen dituen eginbeharrak, baina adituek diotenez, Lonconen izendapena historikoa eta sinbolikoa da, feminismoari eta herri indigenei keinu egiten die, eta eztabaidaren bozeramaile eta moderatzaile izatea espero dute.

ZORION MEZU FRANKO

Lonconek zorion mezu ugari jaso zituen, Sebastian Piñera Txileko presi-

dentearena barne. «Jakinduria, zuhurtzia eta indarra desio dizkiot Biltzarra konstituzio on batera eramateko, bere agintea errespetatuz eta gure tradizio errepublikazaleak eta gure herriaren balioak jasoz», idatzi zuen Twitterren.

Bertzalde, Ekuadorreko Nazionalitate Indigenen Konfederazioak (Coanie) bere poza azaldu zuen. «Lonconek antolakunde honen zuzendaritza hartu du jatorrizko herrien ordezkari gisa, nazio ugarien ametsa gauzatzeko», agertu zuen. Haren ibilbide akademiko, politiko eta soziala aitortu ondotik, haren ekintzek «herrien aniztasuna eta euren oinarritzko eskubideak onartu eta bermatzeko borroka» irudikatzen dutela azpimarratu zuen. «Arrakastarik handiena opa diogu demokraziaren aldeko etapa historiko honetan. Maputxe nazioaren indarra, jakintza, memoria eta borrokak emanen dituen pausoetan isla daitezela».

HIZKUNTZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILEA

Txile hegoaldeko Araucania eskualdeko Traiguen-en jaioa, maputxeak nagusi diren lekuan, Lefweluan komunitatean bizi izan zuen Elisa Lonconek haurtzaroa. Eskolara joateko zortzi ki-

Elisa Loncon Jaime Bassa abokatuarekin. Txileko Biltzar Konstituziogilearen presidente eta presidenteorde aukeratu zituzten, hurrenez hurren.

Javier TORRES | AFP

lometro egin behar izaten zituen etxetik, sarri oinez. Emakumea, ama, irakaslea eta jatorrizko herrien hizkuntza eskubideen defendatzailea da. Mapudunguna da bere ama hizkuntza eta gaztelaniaz eta ingelesez ere badaki.

Diktadura garaian, Traiguenen ikasi zituen Lehen eta Bigarren Hezkuntza eta Temucoko La Frontera Unibertsitatean ingeleseko irakasle izateko graduatu zen. Campusaren egoitzan bizi izan zen eta oporretan bertako aholkulari gisa lan egin zuen, mantenua ordaintzen laguntzeko.

Ikasketetan ibilbide luzea osatua du. Mexikoko Unibertsitate Autonomo Metropolitanoan Hizkuntzalaritzako irakasletza egin zuen; Herbehereetako Leideneko Unibertsitatean, Giza Zientzietako doktoretza; eta Txileko Unibertsitate Katolikoan, Literaturako doktoretza. Gero, Hagako Ikasketa Sozialen Institutuan eta Kanadako Reginakoko Unibertsitatean jarraitu zuen prestatzen.

Gaur egun, Txileko Santiagoko Unibertsitateko Hezkuntza Saileko kidea da, Unibertsitate Katolikoan irakasle dabil, eta Txileko Herri Indigenen Hez-

Ibilbidea Elisa Loncon Antileo duela 58 urte jaio zen Txile hegoaldean, Araucania eskualdeko Traiguen-en. Lefweluan komunitate maputxean bizi izan zuen haurtzaroa. **Irakaslea, hizkuntzalaria eta gizarte aktibista** da. Bertzeak bertze, Txileko Herri Indigenen Hezkuntza eta Hizkuntza Eskubideen Sareko koordinatzailea da.



kuntza eta Hizkuntza Eskubideen Sareko koordinatzailea da.

Jatorrizko hizkuntzak erreskatatzeari eskaini dio bizitza profesionala, baita mapudungun ama hizkuntzari, irakas-teko moduei eta maputxe hizkuntza-ren ikasgaiaren curriculum diseinatzeari ere. Liburuak eta artikulak plazaratu ditu jatorrizko herrien filosofia eta hizkuntzei buruz, bereziki mapudungun hizkuntzan zentratuz.

KONPROMISO SOZIALA

Elisa Loncon Antileok haurra zenetik parte hartu izan du antolakunde sozial ugaritan. Unibertsitate sasoian ikasle talde indigenetan militatu zuen, Admapu Antzerki Maputxean ere ibili zen, eta Lur Guztien Kontseiluko kide aktibo izan zen. Bertan, Wenufoye bandera maputxearen eta jatorrizko herrien lurren berreskurapenean lan egin zuen batez ere.

Maputxe herriak hamarkadak daramatza Txileko Estatuarekin eta basogintzako eta nekazaritzako enpresekin gatazkan, antzinako lurren defentsan. Biltzar Konstituziogilearen presidente berriak familia eta komunitatearen

Manifestari bat Txileko bandera astintzen, Biltzar Konstituziogilearen inaugurazio ekitaldiaren egunean, joan den igandean.
Martin BERNETTI | AFP

gandik jaso zuen jendartearenganako konpromisoa.

Birraitatxi, Loncomil abizenekoa, Wallmapu-ren (maputxe nazioaren lurralde eremua) okupazio militarren kontra borrokatu zen eta Jose Santos Quilapanen (1840-1878) aliatu izan zen. Araucaniaren okupazioari eutsi zion azken *lonko* edo buruzagitzat hartzen da berau. Bertzeak bertze, armada txiletarra garaitu zuen Quechereguas-en, 1868. urtean.

Bertzalde, Elisaren amak, Margarita Antileo Reimanek, Lumaco-Quetrahueko lurraren autokudeaketaren esperientzian parte hartu zuen 70eko hamarkadan. Sasoi berean, Juan Loncon aita militante sozialista eta USOPO alderdiaren diputatu hautagaia izan zen. Nekazaritzan eta altzarien eraikuntzan ibili ziren Margarita eta Juan bizitza osoan.

Estatu-kolpearen ondoren, familia jararria izan zen eta amaren aldeko aitatxi, Ricardo Antileo, Lumaco-Quetrahue inguruko liderra, espetxeratu egin zuten 60ko hamarkadaren amaieran eta 70ekoaren hasieran lurren berreskuratzeen buru izateagatik.

Zazpi anai-arrebaren artean laugarrena da Elisa. Anaia bat abokatua eta PPDko militantea da. Ahizpa bat mapudungun hizkuntzaren itzultzailea da eta literatura maputxea jorratzen du. Senide guztiek laguntzen dute jatorrizko nazioen eskubideen aldarrikapenean eta hizkuntzaren erreskatean.

Unibertsitate garaian, Loncon diktaduraren aurka borrokatu zen ezkerreko hainbat ikasle antolakunde maputxetan. 1983. urtean, ikasleen mobilizazioetan parte hartzeagatik, Heinrich von Baer errektore ordezkariaren aginduz ikasle “baldintzatu” gisa gelditu zen.

Hizkuntzalari eta jatorrizko herrien eskubideen defendatzaile modura, Latinoamerikako bertze herrien borrokak bere egin izan ditu eta, bueltan, kontinenteko jatorrizko nazioen hizkuntza eskubideen alde egiten duen ekarpena aitortu izan zaio.

HEZITZAILEA

Hezitzaile maputxe bezala kultura anitzeko hezkuntza elebiduna bultzatu zuen Hezkuntza Lege Orokorrean eta herri indigenen hizkuntza eskubideen lege proiektu bat aurkeztu zuen. Gaur egun, emakume indigenen eskubideen aldarrikapenen liderra da, filosofia maputxea, feminismoa eta dekolonialitatea ardatz hartuta.

Ingelesa eta mapudunguna irakatsiz hasi zuen hezitzaile ibilbidea Araucanian, Hezkuntza Ministerioa, Unesco, eta Bio-Bio, La Frontera eta Catolica de Temuco unibertsitateak bidelagun zituela. Atzerrian, Mexikoko Hezkuntza Publikoko Idazkaritzaren kulturarteko hezkuntza elebidunaren koordinazio orokorraren aholkulari izan zen. Bigarren Hezkuntzaren curriculum nazionalan kulturarteko hezkuntzaren ikuspegia gehitu zuen.

Ikerketa ugari egin ditu mapudungunaren gainean, hainbat gai landuz: bere forma eta alderdiak, irakaskuntza metodoak, ahozko tradizioa irakaskuntza prozesuetan erabiltzeko aukerak, eta jatorrizko nazio gisa eskubideak osoki baliatzearen aldarrikapena.



TWITTER

IKUSMIRA

IDENTITATEAREN ALDEKO TXERTO DOSIA ARGENTINAN

Koronabirusaren kontrako txertaketa baliatuz, Argentinako Maiatzaren Plazako Amonek eta haien bilaketari esker errekerperatu dituzten bilobek identitatearen aldeko kanpaina abian ipini dute Twitterren. Argentinan 40 urtetik gora dituztenei txertoa jartzen hasi dira eta diktadura garaian jaio eta lapurtu zituzten haurrak

egun adin tarte horretako helduak direnez, Maiatzaren Plazako Amonen presidenteak, Estela de Carlottok, dei berezi bat egin du: «Txertoa jartzeak zure bizitza salbatzen du; zure identitateari buruzko zalantzak badituzu, bila ezazu egia». Goiko argazkietan, Ignacio Montoya Carlotto (ezkerrean) eta Manuel Gonçalves azaltzen dira. 2014an eta 1997an, hurrenez hurren, jakin zuten jaiotzean bahitu zituztela. Haien eta aurkitutako biloben mezua honako da: «Egun hauetan txertoa jasotzen ari bazara eta 1975-1980 artean jaio bazinen, bilatzen ari garen bilobetariko bat izan zaitezke. Zalantzak badituzu #Abuelas (abuelas.org.ar)-ekin komunikatu». Ainar Lertxundi



Oier Gorosabel - @Txikillana
Fisioterapeuta

Lurrikara osteopatikoak


Pasa den hilean, Espainiako Fisioterapeuten Elkartean (AEF) lurrikara bat gertatu da. Garai batean Hego Euskal Herriko fisio guztiak elkarte horren barruan geunden, harik eta 2000. urte inguruan, elkargo profesional autonomikoak sortzen hasi ziren arte. Horretara, lan korporatibo asko elkargoan esku geratu zen eta AEFk arlo teknikoan eta zientifikoan lanean jarraitu zuen. Elkarreak estatuko fisioterapiaren maila zientifikoa eta ospe soziala handitzeko lan handia egin du, estimatze-koa benetan.

2012 inguruan, espainiar fisioterapeuta “influencer” batzuek ebidentzia zientifikoaren zaleen korrante bat sortu zuten. Arrakasta handia izan zuen, eta handik gutxira Fisioterapia Sin Red (FSR) plataforman gorpuztu zen. Gaztetasunak berezko dituen grina eta ausardiarekin, pare bat urtez estatuko fisioterapeuton arteko giroa polito astindu zuten, eta arrazoinamendu klinikoa- ren hazia norabide guztietan erein. Eztanda horren ostean, baina, gaseosa botilarena egin zuten: gasa galdu. Espero zitekeen: lehen denbora libre asko zuten, baina agendak bete- tzearekin batera (ikastaroak, kontsultak, hitzaldiak...), haien presentzia publikoa nabarmen jaitsi zen, FSR aktibitate- rik gabeko webguneen kanpo- santuan aparkatuz. Dena den, mugimendu masibo horretatik zerbait gelditu zen: ildo horretan lan egi- teko gogoia eta astia zute- nek AEFrekin hitzarmen bat egin zuten, elkartearen barruan komisi- o berezia sortuz (Asociación para el Pensamiento Crítico, AEF-APC).

Garai bateko influencer haietako bat, Ruben Tovar,

osteopatiaren aurkako “gurutzada santuan” dugu aspaldi. Gatz eta piper ugarirekin, fisioterapeuta askok erabili izan dugun metodo horren gabeziak gupida gabe seinalatu ditu, brankaz, formakuntza arloan diru asko mugitzen duen lobbyaren interesen aurka. Lobby honek Espainiako fisio- terapiaren goi mailako erakundeetan (elkarte, elkargo, unibertsitate...) kide ugari ondo kokaturik ditu, eta korpo- ratibismo nabarmenez, urte askoan fisioterapeuta guztien kolektiboan fisioterapeuta-osteopata direnen azpikolekti- bo bat sortu nahi izan da. Horrek gauza onak ekarri ditu (osteopatiaren praktikan maila zientifikoa nabarmen han- ditzea, adibidez) baina baita zenbait praktika ez oso etiko ere. Horiek dira azken zortzi urteetan FSRtik ateratako ahotsek –Tovarrena bereziki– etengabe salatu izan dutena, eta ni neu hein handi batean bat nator horretan (kontura- tu ez bazarete, nire kolabo- razio hauek “fisioterapeu- ta eta osteopata” bezala hasi nituen, baina 2018az geroztik fisioterapeuta “huts” bezala sinatzen dut).

Elementu hauek txirikor- datuz sortu da lurrikara: AEFko zuzendaritza bat- zordean fisioterapeuta- osteopatek ordezkari- tza zabala dute; orain arte, AEF-APC komisi- oaren le- hendakaria Tovar izan da; honek liburu bat argi- taratu duenean (“La Osteopatía, Vaya Timo”; Círculo Rojo, 2021) pos- tu horretatik egotzi du- te. Zuek, irakurleok, ez duzue oraindik lurrikara igarri gure elkarte profe- sionalen barruko kontua izaten ari delako; halere etorriko zaizue txanda. Baina lasai egon: zuen osasunaren mesederako izango da eta. •



{ asteari zeharka begira } **Ramon Sola**

Euskal Herrikoa izatea kaka zaharra bilakatu al dugu?

Lagun batek laburbiltzen duenez, herri hau «jasan dezakeena baino gehiago *espainoleatzen* ari da» azken bolada honetan. Ez diot nik arrazoa kenduko, zenbait adierazgarri ikusita, baina espainiartasunak gorantz egin duela baino gehiago euskaltasuna krisian delakoan nago, edo lozorroan behintzat. Gure herri harrotasuna apaldu egin dela, espainiar izatearena puzten joan den bitartean. Pancorbotik beherako bidea egiten erraz nabari daiteke gure kale paisaiatik desagertu den ikurrin bakoitzetik bi piperpoto zintzilikatzen dituztela han.

Har dezagun futbola adierazgarri gisa, beste edozein gai izan litekeela jakinda, ezerk gutxik duelako horren indar sinbolikoa. Inoiz baino elastiko gorri-hori gehiago ikus daiteke gure karriketan eta nekez uka daiteke beste hamarkada batzuetan berdea gehiago janzen genuela. Euskal umeek txapeldun ikusi dituzte Espainiako eta Frantziako selekzioak, eta euskal selekzioa... ez dute ikusi ere egin. Baina egoeraren adierazle garbiagoa –bai eta patetikoagoa ere– deritzot gizonetzkoen selekzioaren entrenatzaileekin gertatu dena: Libiaren eskaintza onartu berri du (ez Italiarena, ez Argentinarena) eta Euskal Herrikoarekin bateragarria ote den galdetu diotenean, partidarik ez dagoen bitartean egingarria dela erantzun du gizonak. Serio ari zen edo txantxetan ez dut ulertu, baina karguan segitzen du.

Badira, jakina, adierazgarri garrantzitsuagoak. Pandemiaren testuinguruak Madrilen zein Parisen jaun eta jabegoa indartu du. Urkulluren asteroko haserrealdia ez dira ezertan gauzatu, umeen kasketak bezalaxe. Gaur Pariseko udatiar batek txertoa lor dezake Biarritzen baina Irungo gazte bati ukatuko zaio. Nazio tresna batzuk galtzen utzi ditugu, azkena Gaindegia-
ren behategia. Euskararen erabileraren moteltzeaz luze hitz egin liteke. “Gernika”-k Madrilen segitzen duela gogoratu berri digute, nola eta Ibarrolaren lan batekin,

non eta Madrilen bertan. Adibide arin batzuk dira, ez besterik. Autoflagelazioa ez da ariketa osasuntsua.

“Trainspotting”-en pasarte ezaguna etorri zait burura (<https://www.youtube.com/watch?v=M4UfFluAo1w>): «Eskoziarra izatea kaka zaharra da!». Ginebra botila eskuan oihuka diharduen Mark Rentonen arrazoi berdinak bere egingo lituzke hemengo askok: «Batzuek ingelesak gorrotatzen dituzte, nik ez, ergel batzuk besterik ez dira, ergel batzuk kolonizatuta bizi gara, gu kolonizatuko gaituen kultura duin bat ere ez dugu aurkitzerik izan, tontolapiko batzuek gobernatzen gaituzte, hau kaka zahar handi bat da eta munduko aire garbi guztiak ere ez ditu gauza puta horiek aldaraziko!». Nihilistatzat har genezake Renton baina nihilistatzat joko genuke Evaristo Paramos ere eta honek Euskal Herria Galiako herrixka gaindiezintzat izan du; bada aldea.

Autoestimua galera honekin ez daude kezkatu-
rik euskal gobernariak: kontrakoa iragar daiteke, eroso direla, ardura politikoak gaineratik kentzen dizkielako

Eguno autoestimua galera honekin ez omen daude kezkatu-
rik euskal gobernariak; kontrakoa iragar liteke, batzuk eroso-eroso direla autoexijentziaren mailaren jaitziera honekin, ardura politikoak gaineratik kentzen dizkien neurrian. Garai postpandemikoetan, gainera, ez da herri harrotasuna berpizteko baldintzarik antzematen, joera indibidualen eztanda baizik. Bistan da, ordea, Euskal Herrian, herri mailan eta kudeaketa politikotik aparte, gauzak ondo eta txukun egin direla urte eta erdi honetan, salbuespenak salbuespen, badela nor bere senideekin, auzokideekin, herriarekin harro ego-
teko motiborik. Bistan da ere gure geografiaren perimetro osoan harrotasunerako arrazoi faltarik ez dela, Ipar Euskal Herriko hauteskunde-
en emaitzetatik Union Tuteraren sorkuntza zirrargarria. •

NOLA ETA NORENTZAT ARI DA ANTZALDATZEN DONOSTIAKO PARTE ZAHARRA?

Jon Galardi Pagola

Pandemia iritsi aurretik, eztabaida mahai gainean zegoen. Donostiako Parte Zaharraren fisionomia zeharo aldatu da azken urteotan, turistifikazioa eta masifikazioa direla eta. Nola heldu gara honaino? Zer gertatuko da datozen hilabeteetan?

Larunbata, ekainak 26. Iritsi da eguna. Jaques Dutronc-en “Hippie Hippie Hourrah” jarri dutenean, eguzkiak albo batetik agurtu du eta badia argitu da.

Handik gutxira, enkante dibertigarri bat hasi da eta mahaian eserita dauden dozenaka lagun ustekabeen harriatu ditu. Herritar gehienei enkantez hitz egiten bazaie, berehala pentsatuko dute artelanetan edo, asko jota, arrainetan, olioetan, frutetan edo ez ordaintzeagatik esleitutako etxebizitzetan. Are gehiago Interneten aroan, non erabiltzaileak eskaintzak egiten ohituta dauden produktu bat erosteko itxaropenarekin, markatutako denbora batez. Bestelako eskaintza izan da Urgulleko Polborina terrazan martxan jarri dutena, erdi txantxetan: krisi pandemikoaren ondorioz atek itxi behar izan dituen taberna batena, hain zuzen ere.

Iker Irastorza eta Mario Sanchidrian 2017ko udan ohartu ziren Ikatz kaleko Ilargi taberna alokairuan zegoela. Elkarri begiratu eta bi aldiz pentsatu gabe hartu zuten erabakia. Koronabirusak kolpe gogorra eman die eta ezinezkoa bihurtu du bideragarritasuna, lau urteren ostean. Musika zaindu dute une oro, lagun mordoa egin dituzte eta azken agurra eman nahi izan diote tabernari. Amaiera izan duen arren, festa giroa arnastu da Urgullen.



Apaingarri, oroigarri eta bitxikeriak enkantean atera dituzte, horien artean tabernako kudeatzaile ohiak. Okurrentziak berehalako efektua izan du. Bezero denak batera lehertu dira barrez eta milaka “ilargi” eskaini dituzte enkantean, euroaren ordezkari sinbolikoki erabili den dibisa merkatua. Arratseko bederatziatan behin betiko amaiera eman diote ibilbideari. Mariok eta Ikerrek ez dute porrot egin izanaren sentsazioa. Ziklo bati agur esan diote, baina ez dute modu txarrean bukatu. Segituan aurkitu du lana Ikerrek, Juantxo tabernan. «Harreman ona» izan dute Ilargiren jabeekin, Marioren esanetan. Adierazi du koronabirusaren izurrian jarritako oztopoak zailtasun gehigarriak erantsi dizkiola ostalaritzari, eta esperantzari eutsi dioten arren –“Erresistentzia musikala” izan da Ilargiren

Donostiako Konstituzio plaza itxialdi betean. Osasun larrialdiak lehendik zetorren joera areagotu du eta Parte Zaharra berezko arima galtzen ari da.
Jon URBE | FOKU

leloa– tabernaren biziraupena bermatzeko ez dira bete lan baldintza duinak.

Narrika, Ensanche, Eiger, A Fuego Negro, Txiki, Rekalde, Estrada alpargata denda, Ilargi bera... Kaltetuen kopurua gora doa. Luzea da zerrenda. 2016. urteaz geroztik, Donostia Europako Kultur Hiriburu bihurtu zenetik, turistifikazio eta masifikazioaren inguruko eztabaida mahai gainean egon da. Betiko taberna eta saltoki txikiak behera egiten hasi ziren apurka-apurka Parte Zaharrean, horietako bat Aldamar kaleko Rekalde. Berotasunez eta gozotasunez ondutako bidegurutzea bihurtu zen trago bat hartzeko jatorri ezberdina zuten hainbat kulturazalerentzat. Gogoan geratzeko moduko bukaera izan zuen. 2018ko abenduaren 30ean ixteko agindua heldu zen eta enpresa batek erosi zuen eraikina, espekulatzeko egin zen

operazio berri baten atarian, antza de-
nez. Agus Rodriguez Rekaldeko jabea
zen. Gaur egun lokala hutsik dago eta
bi urte eta erdi bete dira Groseko Pan-
dora taberna Txofre kalean abian jarri
zuenetik, pandemiaren bezperan. Agu-
sek jakinarazi du «zoriontsua» dela
Pandoran, Donostiako bere betiko au-
zoan, eta gainditu egin dituela hark au-
rreikusitako emaitzak. Terrazaren era-
gina «nabarmena» izan dela esan du.
Astiro bada ere, langileak aldi baterako
erregulaziotik atera ditu, eta euskaraz,
ilusioz eta tratu onez eraikitzen ari da
Pandoraren identitatea, betiere modu
inklusiboan. «Karmari» leporatu dio
Agusek azken urteotan bizi dituen go-
rabeherak. «Bitxia da. Baina oso kon-
tziente naiz murrizketa gogorrenen ga-
raian, gehienez ere, bizpahiru pertsona
egongo ginatekeela Rekalde lanean.
Eta orain, asko jota, lau», aitortu du.

«DONOSTIA EZ DA PROMOZIONATU BEHAR»

Gaur Konstituzio plaza bezala ezagu-
tzen dugunak 1813an Plaza Berria izena
zuen. Eguraldi epela lagun, bazkaloste-
an jendez lepo daude terraza guztiak.
Bi emakume agertu dira. Margolan bat
balitz bezala, konposizioaren ardatze-
an tente pintaturik dauden bi emaku-
me dira. Ester Uriarte eta Loren Loidi,
biak ere 1994an etorri ziren Parte Zaha-
rrera bizitzera, eta biak ere euren bo-
rondatez. Ikatx kalean bizi da Uriarte,
Ilargi tabernatik oso hurbil; Fermin
Kalbeton kaleko etxebizitza batean bizi
da Loidi, «Alde Zaharreko eskaparate
gastronomiko nagusia» dena eta «pla-
taforma turistiko potente» gisa defini-
tu du bere bizilekua. Zergatik egin zu-
ten aukera hau galdetuta, Loidik oso
argi du: «Uliatik etortzea aukeratu ge-
nuen, hain zuzen ere, bizitza hemen
egiten genuelako. Gure harreman sare-
ak hemen zeuden. Pozik hautatu ge-
nuen hona etortzea», esan du Hama-
bost tabernako terrazan eserita. Baina,
finean, nolakoa izan da azkeneko 25 ur-
teotako bilakaera Donostiako auzorik
famatu eta zaharrenean? Hitz egiten
jarraitu du Loidik. «Alde Zaharraren
eraldatzea ikusten ari gara, bertatik
bertara». «Etxea erosi nuenean zarata



Goian A Fuego Negro taberna eta behean Rekalde. Biak itxita daude orain. Jon URBE- Juan Carlos RUIZ | FOKU

handia zegoen baina gaur egun iskan-
bila areagotu da», gaineratu du Uriar-
tek. «Nire etxeak Ikatx kalea ematen
du alde batetik; bestetik, Konstituzio
plazara. Ikatx kalean garai gogorak pa-
satu ditugu, zarata handia zegoen ha-
sieran, baina gauzak baretu ziren eta
taberna batzuk itxi egin ziren. Hainbat
urtez behera egin ondoren, berriro ere
ugaritu egin dira. Zikinkeria mordoa
dago, zarata pila... Bizilagunek hori
guztia jasan behar dugu». Egin duen
deskribapenak hondartzako olatuen
joan-etorri etengabea dakar gogora eta
urtetik urtera okerrera egin du egoe-
rak.

Parte Zaharrean Bizi auzo elkarteak
ezagutu dute elkar Ester Uriartek eta
Loren Loidik. Jomuga berbera dute:
duintasunez bizi nahi dute, besterik
gabe. Gogoeta eta ekarpen batzuk egin
dituzte. Elkarreak datu batzuk azpima-
rratu ditu, «alarma pizteko moduko-
ak», eta bilakaera horren «isla» dire-
nak. «2004tik 2017ra biztanleriaren %9
galdu du auzoak, horrek esan nahi du
gero eta jende gutxiago bizi dela ber-
tan. Galtzen dugun biztanleria adin
ugalkorrean dagoen jendea da; beraz,
zahartutako auzoa ere bada orain. Gaz-
teek alde egiten dute izugarri ari dela-
ko garestitzen auzoa. Pisu turistiko as-
ko dira. Inbertsoreek etxeak erosten
dituzte eta espekulatzailen eskutan
geratzen ari da Alde Zaharra. 452 ditu-
gu hutsik, eta hori parke osoaren %17,3
da», salatu dute.

Behera egin du turismoak izurriaren-
gatik, baina «monokultiboa» ez dela
eten ohartarazi du Lorenek, eskutan di-
tuen apunteak eta oharra txukundu
eta gero. Merkataritzaren pisua galtzen
joan da eta ostalaritzarena handitzen,
hitz gutxitan. «2004tik, denda txikiek
%10 egin dute behera. Burdindegia,
mertzeria edo okindegi bat topatzeko
zailtasunak ditugu, bakarren bat geldi-
tzen da. Zer gertatzen ari da? Itxi dituz-
ten taberna eta denda txiki horiek bil-
tegi bihurtu dira edo turistentzako
souvenir salmenta zuzeneko lokalak di-
ra. Ostalaritzak, aldiz, gora egin du na-
barmen. 240 taberna ditugu, 20 biztan-
leko bat. 2000. urtean 186 genituen»,



nahiz eta urte hartan izendatu zuen Udalak Parte Zaharra gune saturatua. «Beti daude trikimailuak gorakada egiteko», dio Lorenek, burumakur.

«Ipar Euskal Herria da monokultiboren eredua: irailean pertsiana botatzen da eta Donibane Lohizune desertua da. Hori da nahi duguna?». Oharra: ez dituzte taberna guztiak zaku berean sartu nahi. Ez dute ostalaritzaren aurka egin nahi. Azkenaldian inbertsio taldeak hainbeste erakarri dituen auzoan bizi dira, non «eskua sartu duten eta ari-marik gabeko negozioak muntatzen dituzten katean. Lauzpabost inbertsio talde ia 20 tabernaren jabe egin dira eta gehiagora doa hori». Eta ondoren, albo-ondorioak aipatu dituzte banan-

Lerro hauen gainean, Goto Egaña eta Loren Loidi, Parte Zaharrean Bizi auzo elkarteko kideak. Eskuinaldeko irudian, Urgulleko Polborina. Bertan irudikatu zuten duela aste batzuk Ilargi tabernaren itxiera.

Gorka RUBIO - Jon URBE | FOKU



banan: kalitatearen beherakada, langileen prekarizazioa, pintxoak gero eta garestiagoak dira, arima desagertu da...

Iazko urtean pandemiaren tunelean sartu ginenean ziurgabetasun garaia izan zen, baita Parte Zaharrean ere. Bizilagunek auzoarekin zuten harremana aldatu zen eta zenbait espazio publiko berreskuratu zituzten, galdutzat jotzen zituzten gune jakin batzuk berriro okupatzeko aukera izan zuten. «Alde onak eta txarrak izan zituen itxialdiak auzoan. Zarata desagertu zen, umeak kalera irten ziren jolastera, lo egiteko aukera izan genuen, txoriak entzun genituen... Aldi berean elkartasuna adierazi nahi diegu gure taberna eta komertzio txikiei; galera ekonomikoak izan dira», laburbildu du Esterrek. Dagoeneko apunteak utzi ditu Lorenek, eta bota du azken mezua, denetan mezurik zintzoena: «Donostia ez da gehiago promozionatu behar. Desazkondeaz hitz egiten hasi behar dugu».

HIRITIK LANDARAKO ZUBI GASTRONOMIKOA

15 urte bete behar zituen ekainean A Fuego Negro tabernak Abuztuaren 31 kalean. Tradizioa, modernitatea eta musika beltza uztartu ditu 2006tik, baina ezinezkoa egin zaio Edorta Lamoren tabernari aurrera jarraitzea eta ezin izan du urteurrena ospatzeko ekitaldia egin. Koronabirusak baldintzatu du ibilbidea eta 2020ko azaroan argiak behin betiko itzaltzea erabaki zuen Edortak: «Barrak debekatu zituztene-

an, gureak egin zuen. A Fuego Negro bezalako formatuari etekina ateratzeko barra ezinbestekoa da, irabazien %80 zen. Saiatu ginen mahaia jartzen baina lau aldiz gehiago egiten genuen lan eta lau aldiz gutxiago fakturatzen genuen». Hilean 6.000 euroko alokairua ordaintzen zuela kontatu du, «elur bola ikaragarri handitu» zen arte. Etorkizuna erabat ilundu zitzaion azken hiruhilekoan eta «pena handiz» itxi zuen A Fuego Negro.

Abandonatuta sentitu dira, ikusirik, «inor, ez udaletxea ez beste edozein erakunde», ez dela irten haiek babes-tera. «Ez genuen instituzioen deirik jaso», ziurtatu du Edorta Lamok. «Arraroa da: aurreko urteetan elkarlanean aritu baikara Donostiako Kultura Hiriburuarentzat, esate baterako». Itolarri ekonomikoaren eraginez, bizi-tzak bigarren aukera eman dio, ordea, eta aprobetxatzen ari da. Pasa den abenduan ireki zuen Kanpezun, bere jaioterrian, Arrea! izeneko jatetxea, sustrai gogor eta basatietara bueltatuz. Erasora joz defendatu du Lamok bere ogibidea eta atzean utzi du Donostiako Parte Zaharra, turisten eta nagusi berrien neurrira eraldatzen ari den auzoa, akaso. «Pentsatzen zuten erotu nintzela, Euskal Herriko leku ezatsegin batera etorri naizelako, Kanpezura. Baina oso ondo moldatzen naiz. Hemen jaio nintzen. Hemen dago nire etxea eta nire bizitzako proiektua», esan du sukaldariak.



Alai
ZUBIMENDI

iRRITZIA:



ETA MAITA HERRIA... (BIGARREN ATALA)

Gerardo MUNGIA

Bigarren atal honetan, lehen peredikuan, pastoreko sujet edo protagonistak aurkezten dira: Patxi eta Idoia. Iruñera joan dira biak lan egitera, zein bere herritik, eta han ezagutuko dute elkar. Lehenengo jelkaldian hasiko da haien istorioa.

LEHEN PEREDIKÜA

Arizale guziak (kanpotik) eszenatokirat iganen dira.
Pastorala abian da.

1. Herri-antzerkia azkar
Baskoniako ibarretan.
Mauletik Bargotarat.
Hiri hontako karriketan.

2. Agur, jende orori!
Egun on Euskal Herria!
Pastoralak sor ditzala
negarra eta irria!

3. Gaurko gure süjetak,
alegiazkoak izanki,
bataiatuko ditugu
bat Idoia bertzea Patxi.

4. Biziko duten abentura
guzientzat ezaguna.
Nekazaritza utzirik
fabrikan etorkizuna.

5. Etxean zituzten jakin (ezagutu)
ardi, behi eta mandoak.
Baratzea, belardiak,
basoko lanak, soroak...

6. Epe aski laburrean
bizimoldeak aldatu.
Herrian beren asmoak
baitzitzaizkien hondatu.

7. Iruñerat abiatu.
Laster lantegian hasi
gostuko ez zuten lanetan.
Nonbaitetik behar bizi!

8. Hala ere sorlekua

maitatzen zuten biziki.
Ia astero egiten
bat edo biga sar-ilki (bisita arina).

9. Gure hizkuntza aldeko
defentsan ziren agudo.
Klase-arteko borrokan
izanik ere arras kauto (zentzudun).

10. Patxi auzo gau-eskolan
maitemindu zen Idoiaz.
Elkarrekin kamus (ezer gabe) hasi.
Alta, bizitzeko doiaz.


11. Andrea haur beharretan.
Bikotea zorion gosez
apaintzen beren habia.
Uros (zoriontsu) izateko luzez.

12. Sar zaitezte eta ikusi
gure antzerki nazionala.
Xiberoan sustaturik.
Hots, gure Herri-pastorala.

Arizaleak eszenatokitik erretira, bakoi-
tza bere atetik. Eszenatokia orobat hu-
tsik geratu da.

1. JELKALDIA

Patxi gaztea Euskal Herriko herri tiki
batean sortu da. Laborarien familia lu-
ze baten barnean. Lurra errentagarrita-
sun aldetik gero eta antzuagoa da;
abeltzaintza berdin. Makineria berria
tai gabe sartzen ari da; subentzio guti,
legar handiak... Nekazaritza xehez bizi
izatea zaila da egun.



Herriko lurraren
errentagarritasuna gero
eta antzuagoa da.
Haira ARIZTEGI

Jelki taulara Patxiren familia (borta urdinetik); etxeko sukaldean solasean hasten dira.

Fermin (aita)
13. Ez duk urterik hoberena.
Matxuratuta traktorra.
Mahastietan bizkarroiak.
Lurra ja ez da bihikorra.

14. Garagarren prezioa gutitu duk neurri gabe.
Esnearenaz, haragienaz ez mintzatzea diat hobe.

Donado (osaba)
15. Aberatsa ez bahaiz,
PAC* sarien eskuratzeak mozkorren eleak dituk.
Zaramazkiek haizeak.

16. Urruneko intxaurrek izan daitezkek hamalau; usu agitzen bezala hurbiltzen haiz eta lau.

Leire (ama)
17. Herrian zituan dendak, ostatuak, ogi labe, harategia, botika... Ikusi, husturik tanpez.

18. Bertako eskola zaharra aspaldian zitean itxi.
Egunero autobusez nahi baditek ikasi.

Izaga (arriba tikia)
19. Eskualdeko eskolarat bertakoa itxiz gero.
Inguruko haurreria han biltzen gara egunero.

Alaitz (arriba tikiena)
20. Erran nahi dut bat oraino: Maite dudala handizki autobusez joatea.
Marirekin bereziki.

Xabier (anaia)
21. Zer duzue neskatikoe? Tarrapataka ohera! Nagusien eleketak zuentzat dira sobera.



«Joxemiel Bidador - Iruñeko euskaldunak» pastoralara Iruñean, 2015ean.
Iñigo URIZ | FOKU

Haurrak erretira ate urdinetik (eskuin).

Eneko (anai gehiena)
22. Traktore gidaria naiz, soldata ona badaukat.
Honek lagunduko, arauz (jakina), jarraitzeko aitzinerat.

Donado (osaba)
23. Patxi saiatuko balitz Iruñean lana xerkatzen... Mekanikan jaioa duk.
Txopia (bultzada tikia) zaiok faltatzen.

Eneko (anai gehiena)
24. Elekatuko natzaio beheko landetan bihar.
Ezin jakin zer barra duen... Gogo onez dezake har...

Guziak taulatik erretira ate urdinetik.

2. JELKALDIA

Eneko (anaia) Patxirekin mintzatu da eta honek Iruñerat joatea onartu du. Herrian oraindik, hondarreko egunak aprobetxatzen, profitatzen ari da inausketako lanetan.

Patxi gaztea Euskal Herriko herri tiki batean sortu da. Laborarien familia luze baten barnean. Lurra errentagarritasun aldetik gero eta antzuagoa da

Eneko (anaia) Patxirekin mintzatu da eta honek Iruñerat joatea onartu du. Herrian oraindik, hondarreko egunak aprobetxatzen, profitatzen ari da inausketako lanetan

Jelki taulara Patxi eta Araceli adiskidea (ate urdinetik); biak mahasti batean ari dira.

Patxi (süjeta)
25. Zeru oskarbi, zohargia.
Zinez eguraldi ederra.
Eztitasunez haizea magal hontan, egutera.

Araceli (adiskidea)
26. Txantxangorrien tak-tak-tak.
Kaskabeltzaren txistua.
Okilaren tok, tok, tok, tok.
Txirriskilaren kantua.

27. Mila erleen burrunba.
Ehun kilkerren azantza.
Barbaloten (intsektuak) harrabotsa.
Txitxarraren harramantza.

Patxi
28. Ote larreen horaila.
Kuku-prakaren urrina.
Mitxoleten kolorea.
Txilarraren usaina.

Nekazari batzuk handik agertzen dira eta elkar agurtzen dute.
Jelki taulara Patxiren adiskideak (kanpotik).

Birdi (adiskidea)
29. Agur Patxi, ongi zara?
Izan dezazuen egun on.
Ostatutik pasa gero.
Ongi bazaizu, e? gizon.

Beltza (adiskidea)
30. Kartetan izanen gara.
Ilunabarrean, aizu!
Nafarroako mus saria gori-goria baduzu!

31. Txato (adiskidea)
Joanen zarela, dakigu, laster Iruña alderat.
Ea zoria baduzun gure aldetik xedeak.

Jelki eszenatokira arizale guziak (bakoi-tza bere atetik). Kantatzera doaz.

*PAC: Europako Nekazaritza Politika Bateratua



Gorka Etxebarria Dueñas
Historialaria

Demokrazia kontsolidatua

Ezaguna da eszena. Haietako batek aurrera jotzen du eta besteek atzetik, modu desordenatuan. Kolpe eta kolpe. Ondotik pasatzen denari, punba! Zerbait oihukatzen dionari, danba! Norbait begiz jo eta han doa haren atzetik arrapaladan, jo duen arte. Gero, horietako hiruzpa-zazpi zauritu direla esaten digute. Kazetari banintz jakin nahiko nuke ea zer lesio izan duten gajoeak eta, gainera, salatu egingo nuke Robocopen uniformeak egiten dizkien lantegia, ezinezkoa egiten baitzait ulertzea nola hainbeste kasko eta belaunekorekin norbaitek min har dezakeen. Uniformeak oso kalitate eskasekoak dira, gobernuek ez dituzte poliziak zaintzen. Hori izango da arazoa.

Madrilen jendea jipoitzen ibili da espainiar polizia aste honetan. Izan ere, nola da posible jendea haserretzea eta kaleko ordena apurtu nahi izatea? Marikoi bat hil dutelako bakarrik? Baina zer uste dute! Gauza bat protestatzea da eta beste bat, oso ezberdina, protestetan haserrea modu gordinen agertzea... Baina espainiar Gobernuak poliziak ulertzen ditu; dirudienez, protestariak ez hainbeste. Edo beldurra dio polizia haserretzeari...

Ohituak gintuzten horrela koetara baina lehen biolentziaren eta biolentoen aitzakia (komodina) erabiltzen zuten. Orain, besterik gabe, horixe egiten dute eta listo. Jipoitu. Ernaiko gazteak edo Tubacexeko langileak. Erko-
rekak ez ikusiarena egiten du, literalki!! Arazo larria daukate jeltzaleek ere euren poliziaren barruan. Eskuin muturreko jendilajez betea dago. Eta balioko diete protesta egiten dugunak betikoak garen bitartean: langileak, emakumeak, gazteak, migranteak, disidente sexualak... Baina etorriko da egun bat, zeinetan publikoki eskuin muturraren alde egingo duten poliziek. Jada egin ez badute. Ahal izanez gero, berriro faxisten etorrera aldeztuko dute. Eta jeltzaleek esango dute ea nola den posible

hori dena. Gainera, errua botako digute: zuek, betikoek, mozkorra-borroka, pintada-terrorismoa... Zuek probokatu zenituzten.

Badakit ez dela hitz fina, eleganteena ere ez, baina argi esan beharra dago: purga, purga eta purga. Gure ordezkari politiko independentistek faxisten purga galdatu behar dute, bai Madrilen bai Arkautin. Eskuin muturrari erantzuteko modu bakarra dago eta ez da horiekin hitz egitea. Ezker abertzaleak urte luzeetan behin eta berriro azpimarratu zuen Espainian ez zela estatu aparatua purgatu eta, gero, gerokoak. Poliziak erabilgarri zaizkie, kontrolaezin bihurtzen diren arte.

Espainiar epaile gorenak ere ahalik eta legearen interpretazio murriztena eta kontserbadoreena egiten dute eta, aspal-dian, gero eta gehiago politikaz dihardute.

Euren burua inoiz baino lasaiago agertzen dute, formak ere zaindu beharrik gabe. Modu espektakularrean eskuin muturraren posizioak babestuz. Imajina ezazu, irakurle, zuk edo nik unibertsitateko titulu bat inon matrikulatu gabe jasoko bage-nu edo arkitektoak bagina bezala sinatuko bagenu...

Miguel Castellsek esaten zuen Herri Bata-suneko senatari izan zen garaian: «Espainia ez da demokrazia; izan ere, ezinezkoa da Euskal Herrian demokraziarik ez egotea eta bai Espainian». Espainiako Gobernuak ere demokrazia kontsolidatua-

ren txorrada hori asmatu behar izan du, zerbait arriskuan ikusten baitute bertako progresistek ere... Niri euskal nazio foralaren ergelkeria hura gogorarazten dit demokrazia kontsolidatuarenak. Ez bata ez bestea, izatekotan, ez dira gauzagarri faxistek lanpostu publikoak mantentzen dituzten artean. •



Ilustrazioa: JONBI EGURTZEGI

{ koaderno } Iker Barandiaran

«Zailtatasuna»

Astebete pasatu dut semeak ikusi gabe. Ez da lehenengo aldia eta oso ondo eramaten dut; egia esanda, halakoetan –orain arte behintzat– ez ditut bereziki faltan botatzen. Nirekin ez daudenean badakit ondo daudela; eta oso gustura hartzen ditut bueltan. Izan ere, beraiekin disfrutatzen nago une honetan, jakina.

Aitortu beharra dago ez dela erraza umeak haztea; ez daukate instrukziorik eta ez daukazu ondo egiten ari zaren edo ez jakiteko neurgailurik. Zure sen onenarekin, instintuarekin jokatu, eta aurrera!

Gaur bertan aita izan den ezagun bat zoriondu dut kolean, eta aspaldian –daukadan zaletasun handienetako batek inspiratuta– erabili ohi dudana esamoldea errepikatu diot: «Orain bai hasten dela rock-and-rolla!». Rock-and-rollak niretzat esanahi oso positiboa dauka, asko eman eta ematen dit eta betetzen nau, baina era berean geldiezin da, ez dauka etenik; musika –nahi baduzu behintzat– ez da inoiz isiltzen. Eta hala dira umeak ere: positibotasuna, dibertimendua eta naturaltasuna barra-barra daukate, baina geldiezinak dira... eta ez dira isiltzen!

Nik dezente luzatu nuen gaztaroa –askotan erabili ohi dudana beste esamolde bat– eta ez nuen aita izateko inongo presarik izan, baina hori heldu zenean –eta ez zen bide guztiz gozoa izan–, gogoan daukat gurekin dagoen seme nagusia etxera ekarri eta gutxira lagun bati esan niola ordura arte ez nuela uste norbait hainbeste maitatu zitekeenik –eta banaiz maitekorra e!–. Ba, nire kasuan, behintzat, sentsazio hori handituz doa beraiek hazten, interaktuatzen eta etengabe harritzen nauten heinean.

Ez dut espresuki aitatasunaren apologia egin nahi. Lehen esan dudana bezala, ez da erraza, nekatu ere egiten dute eta betirako dira; ezin zara beraietaz libratu...ji-ji. Baina... «probatu ez duenak ez daki zer den hau!».

Era berean, guztiz zilegi da halako ardura pisutsuak hartzearen beldur izatea edo, besterik gabe, erabat as-

ke egon nahi izatea, baina edozeinek galdetzen badit edo baiezeko erabakia hartu duelako kezkatu edo burumakur ikusten badut, beti esan ohi diot iraganeko –umerik gabeko– bizitzako gauza asko ez direla betirako desagertuko. Ondo antolatu eta aukeratzuz gero –ia– guztia da posible. Eta beste premisa bat: umeek denbora ematea baino gehiago, kalitatea behar dute; hor zaudela, haien alboan, jakin eta sentitzea. Eta horri gehituko nioke, adin tarte batzuetan behintzat, gai direla leku, egoera eta testuinguru oso desberdinetan –ez bakarrik ‘umeenetan’– disfrutatzeko, entretenitzeko eta garatzeko. Horren adibide argia da, besteak beste, umei ‘umeen musika’ soilik jartzen tematzen direnak. Umeen eta beraien kontra doa hori. Umeak gu baino txikiagoak dira, baina zentzu askotan gu baino argiagoak, eta egokitze baliabide asko dituzte. Oso ondo dakite zer nahi duten eta zer ez; eta beraiekin gurasook izugarri ikasten dugu egunero. Emaiezu aukera, proba egin eta txundituko zaituzte.

Adin tarte batzuetan behintzat, umeak gai dira leku, egoera eta testuinguru oso desberdinetan –ez bakarrik «umeenetan»– disfrutatzeko, entretenitzeko eta garatzeko

Bai, kalkulatzailerak eta krudelak izaten ere badakite, eta ahaleginduko dira zure mugak ezagutzen eta gainditzeko, pazientziarik nekez daukate eta, The Godfathers taldeak abesten zuen bezala, «nahi dute guztia orain». Hori da hainbeste konpartitu, disfrutatu eta ikastearen truke ordaindu beharreko prezioa. Garestia da, baina nik erosten dut, ez bairik gabe merezi du-eta.

Eta hona hemen beste premisa bat: nik gurasoei asko zor diet eta oso eskertuta banago ere, inoiz beste liburu edo dena delakorik sortzen badut, agian askok egin ohi dutenaren kontrara, semeak eskertuko ditut, haien neurrian, haiekin ere, beste gauza asko egiteko eta ikasteko bidea eta aukera ematen didatelako. •

Hogeita hamar urte eman ditu Adolfo Lacunzak Nafarroako Parlamentuan argazkilari lanean. Jardunean egon zen azken batzarrean, lankide eta hautetsien txalo zaparrada jasozuen erretiroa hartuko duelako. Ezustekoa izan zen. Elkarriketa honetan lanean hasi zen garaitik hona Parlamentua eta argazkilaritza nola aldatu diren kontatu digu Lacunzak.

Hogeita hamar urte Nafarroako Parlamentuan argazkilari gisa lanean eta orain erretiroa hartzea tokatzen zaizu. Hiru hamarkada eman dituzu jardun honetan, hasieran kolaboratzaile moduan.
Bai, hasiera 1991. urtean jartzen dut, urte horretan “Navarra Hoy” egunkarian lan egiteari utzi niolako. Gauzatxoren bat egiten hasi nintzen Parlamentuan Natirekin. Bera Carlos Gilekin [Parlamentuko Prentsa eta Protokolo ardura-duna urte luzetan] lanean zebilen. Baina publizitate arloko

lan bat zen, konpromiso sendoa baino gehiago.
Orain freelance deitzen dugun horietako bat zinen.
Bai, freelance bat. Gauza pilo baten aurrean erantzuten zenuelako deitzen zizuten. Ez soilik lekukotasunaren argazki formala egiteko. Margo baten edo beste zerbaiten argazkia egin behar bazen ere, hor ginen hori egiteko. Argiztapen lanak egiten nituenez, ez nuen horretarako inolako arazorik. Beste batzuetan, obra bat nola zihoan azaltzeko erreportaje

«Lehen erabateko banaketa zegoen kazetarien eta parlamentari jaun-andreen artean. Askatasun handiagoa ikusten dut orain»

bat egin behar zen. Denetarik egiten nuen.

Tokatzen zena.
Bai, ezin zen ezetz erantzun! Ez baduzu espezializaziorantz jotzen, zureak egin du.

Oraingo egoera txarra da, baina lehengoa ere txarra zen.
Antzekoak.

Azken hogeita hamar urteotan gauzak asko aldatu dira, bai Parlamentuari dagokionez bai argazkilaritzaren be-



«Niretzako, guztiak berdinak dira, argazkia ateratzeko orduan. Parlamentuan gertatzen dena kontatzea izan da gure lana»

**raren inguruan. Orain erai-
kin zabal eta argitsu batean
gara, baina garai horietan
Arrieta kalean bulego batzuk
zeuden eta osoko bilkurak
Karlos III.aren etorbidean
egiten ziren, Nafarroako Jau-
regiaren alboko eraikinean.**
Eraikin hori arras txikia zen.
Bisitak eta gisako lan protoko-
larioak egiteko deitzen zidaten
niri batez ere garai horietan.
Zuk ere ezagutu zenuen ingu-
ru hura, ezta?

Bai, noski...

Lana askoz ere protokolarioa-
goa zen garai horietan. Erre-
gea etortzen zela, batzorderen
bat, norbaiti domina bat ema-
ten ziotela edo beste norbaiti
errekonozimenduren bat egi-
ten ziotela.... «Aizu, Adolfo,
etortzerik baduzu?», esaten zi-
zuten. Eta han joaten zinen.
Horrela ziren gauzak orduan.
Gauza solteak ziren, ez zegoen
jarraitutasunik.

Suposatzen dut garai horie- tan Parlamentuko lanaz apar- te beste lanetan aritu behar- ko zenuela.

Bai, bai, noski. Egunkaria utzi
nuenean, publizitate arloan
gauzatxoak egiten hasi nin-
tzen. Estudioaren esparruan
interes handia nuen. Ardoak,
enpresen katalogoak eta an-
tzekoak... horiei ateratzen ge-
nien argazkiak. Horretan jar-
duten nintzen batez ere. Dena
den, inguruko aldizkari ba-
tzuentzako lanak egiten jarrai-
tzen nuen. “Negocios en Nava-
rra” kasu. Edo “Ze Berri?”
euskarazko aldizkaria. Horie-
kin ere urte mordoa daramat
kolaborazioak egiten. Errepor-
tajeak egiten jarraitzen nuen,
baina dagoeneko publizitate
arloko lanak egiten nituen. Sei
urte neraman orduan “Nava-
rra Hoy” egunkarian eta beti

berdina egiten nuen: Osasuna,
Parlamentua eta prentsaurre-
koak, prentsaurrekoak eta
prentsaurrekoak. Zeure burua-
ri «argazkilaria naiz eta gauza
berriak egin nahi ditut» esaten
diozu une jakin batean. Lagun
batek publizitate agentzia bat
zuen eta berarekin lanean hasi
nintzen, gauza desberdinak
egiteko asmoarekin.

Parlamentuko lana osagarria zen, beraz...

Bai, noski. Denari baietz esan
behar zitzaion. Ideia errepor-
taria izatea zen, baina bide be-
rri bat nuen aurrean. Eta inte-
resa nuen ardo botilak nola
argiztatu behar diren ikasteko.
Edo erretratuak egiten ikaste-
ko, book-ak egiten, modarako
argazkiak edo Leclerc super-
merkatuendako publizitatea.
Guztiari ekitea zen gakoa. Gai
nintzen ala ez ikusteko, gauza
berriak egiten hastea zen garai
horietan nuen grina. Parla-
mentura Elena Torres [2007
eta 2011 artean Ganberako pre-
sidentea] eta konpainia eta Al-
berto Catalan [Parlamentuko
presidentea 2011 eta 2015 arte-
an] web-arekin etorri ziren ar-
te ez zioten garrantzi handia
ematen irudiarri.

Arrieta kaleko batzorde ho- riek edo Karlos III.enean egi- ten ziren osoko bilkurak oraingoen aldean oso desber- dinak dira. Toki gutxi zegoen eta pilatuak ginen.

Eta aldi berean izugarrizko ba-
naketa zegoen. Hemen pren-
tsa, eta hemen parlamentari
jaun-andreak. Hori zen inda-
rrean zegoen sistema. Orain ez
dakit zer-nolako tratua izango
duzuen hautetsiekin, baina
nik ikusten dudanez askata-
sun handiagoa dago. Lehen
dena zen «hemendik aurrera
ezin zara pasatu»; erabat arau-

tua zegoen dena. Parlamentua
ez da inoiz izan toki gardena.

Zurruna da. Hobera egin du, baina zurruna izaten jarrai- tzen du.

Ados naiz, gardentasunari da-
gokionez aurrera egin dugu.
Zalantzarik gabe. Jauzi handia
eman behar izan dute, behar-
tuta bada ere. Batzuei gustatu-
ko zitzaien eta beste batzuei
ez. Baina hona sartzen zara eta
dena antolatuta dago. Parla-
mentuak jendearengandik as-
koz ere gertuago egon beharko
luke. Une hauetan, jendeak ez
ditu Nafarroako Gobernua eta
Parlamentua desberdintzen.
Jendeari kostatu egiten zaio
hemen antolatzen diren era-
kusketak ikustera etortzea.
Kristalezko sabaia dago he-
men ere. Sartzerik baduzu,
baina filtro bat dago. Interesa
duen zerbait dagoelako jendea
erakartzen duen toki bat iza-
tea ona litzateke. Azkenean,
Parlamentua guztion etxea da.
Nafarroako Gobernuaren ka-
suan, ordean, agintzen duena-
ren etxea da. Hemen ez, he-
men guztiak daude.

Parlamentuan batzuetan ten- tsio handiko uneak ditugu, gai polemikoen gaineko ezta- baida sutsuak. Baina badira erdipurdikoak edo asperga- rriak diren osoko bilkurak...

Argazkilari batentzat asperga-
rriak.

Kazetari batentzat ere bai...

Osoko bilkura mugitua izan
duzunean, argazkiak deskarga-
tzera igotzen zara eta material
ona duzulako sentsazioa duzu.
Denbora luzea eman duzu la-
nean, baina materiala baduzu.
Egia esan, izango duzun oihar-
tzuna berbera izango da bilku-
ra aspergarria izan bada edo
tentsioa izan bada. Argazkiak

ADOLFO LACUNZA

ARGAZKILARIA

Hogeita hamar urte eman ditu Adolfo

Lacunzak Nafarroako Parlamentuko

argazkilari gisa lanean. Erretiroa hartu du,


lankide eta hautetsien txaloen artean.

Egindako ibilbidea jasotzen saiatu gara.

Martxelo Diaz Aristizabal

webean paratzen ditugu eta lixto. Beste batzuetan, berriz, bulegora igotzen zara eta inor ez dela bere tokitik mugitu ikusten duzu. Ez da itunik izan eta dena erabat estatikoa izan da. Zer egiten duzu horrelakoetan? Ba, profilak egin, detaileak. Badakizu ez direla informatiboak. Baina osoko bilkura bat kontatzen duzunean bilkura hori nolakoa izan den kontatu behar duzu. Eta batzuetan linealak dira. Egia da, halaber, osoko bilkura aspergarrietan lauzpabost lagunek, negoziatzeko mugitzen badira, joko asko ematen dutela. Eta bilkura horrek izan duen intentsitate eskasarekin ez dator bat irudia. Beste batzuetan, berriz, osoko bilkura intentsoak izan dira baina ez duzu asmatu eta ez dituzu harrapatu. Edo ez zaude toki egokienean eta ezin duzu tentsionamendu hori islatu. Dena den, Parlamentuko argazkilariaren lana eta prentsako argazkilariaren lana ez dela berdina uste dut. Parlamentario guztiak, atrioan modu naturalean daude. Osoko bilkuren aretora sartzen dira eta ideologiaren kaputxa jartzen dute buruan. Nik alderantziz egiten dut. Parlamentura nire ideologiarekin nator –guztiok dugu ideologia– baina atean uzten dut. Berdin zait zer istilu dituzten. Nik dagoena kontatzen dut. Hori izan da beti nire asmoa.

Parlamentuko argazkilari gisa ezinbestekoa da erabateko neutraltasunez aritzea. Bai. Eta ziur naiz horri esker egon naizela lanean hainbeste urte. Niretzako, argazkia egiterakoan, denak berdinak dira. Parlamentuan gertatzen ari dena kontatzen ari naiz, konposizio batekin ala bestearekin. Gertatuko dena ez galtzen



Ifigo URIZ | FOKU

«Jende askok Nafarroako Gobernua eta Parlamentua nahasten ditu. Kostatzen zaio erakusketak ikustera hona sartzea»



saiatzen naiz, baina aseptikoa izan nahi dut. Horrela izan da.

Arrieta kaleko garaietako Parlamentua aipatu dugu. Egoitza berria askoz ere hobe da lan egiteko. Bai, bai. Teknikoki askoz ere hobe da, noski. Hemen ez du inork flashik erabiltzen. Han, ez bazenuen erabiltzen, argazkirik gabe gelditzen zinen. Bilkura aretoa pittin bat konfliktiboa da argiaren ikuspegitik argazkiak egiteko. Baina dagoena ikusten duzu, dagoenari

argazkia ateratzen diozu eta teknikoki konpontzen saiatzen zara. Badugu konpontzeko teknika nahikorik. Zailagoa izan ohi da norbaiti argazki desberdin bat ateratzea beti toki bereborean eserita dagoenean. Keinu baten zain zaude. Hori da erronka: nola egin argazki desberdinak jende guztia toki bereborean eserita dagoenean beti.

Desberdinak ez diren argazki horiek artxiborako erabilgarri izaten dira askotan.

Bai, noski. Tresna bakarra dugu guk, argazki kamera. Dena zuzena izan behar da. Eta irakurtzeko erraza izan behar da. Irudia azaldu behar baduzu, kale egin duzu. Parlamentuko jardueraz ari gara. Ez da ikusi duzun eszena baten abstrakzioa, egun horretan joditua zaudela imajinatzen duzun zerbait. Ez, hor dagoen hori kontatzea da.

Zuen lanaz haratago doan zerbait izango da, agian, baina badira gauzak kontatzen

dituzten argazkiak. Esaterako, EH Bildukoak eta PSNkoak hizketan: lehen ez zuten hitz egiten, orain bai. Nafarroako politikaren interpretazioa dago hor. Noski. Baina jendeak argi izan behar du PSNkoak eta Navarra Sumakoak hizketan baldin badira zuk ez dakizula zertan ari diren. Bakoitzak nahi dituen ondorioak aterako ditu. Eta ideologia desberdineko bi egunkarik zerbait desberdina ikusiko dute. Beste maila bat da hori.

Maniak

Joxean Agirre

Niri maniak dituen jendea gus-
tatzten zait. Bertsozaleen arte-
an Sebastian Lizasoren ohitura
bat komentatu ohi da: bazkari-
tan zopa ateratzen badiote, aitaren egi-
ten du jaten hasi aurretik; entsalada ate-
ratzen badiote, ez. Egañak galdetu zion
behin zergatik egiten zuen hori eta
«mania bat», erantzun zuen.

Gure maniek eta gaixotasun psikolo-
giko arinek egiten gaituzte garen bezala-
koak. Nik baditut mania batzuk neureak
bakarrik izan daitezkeenak eta beste ba-
tzuk orokorrangoak. Bigarren mota hone-
takoa da Bilduko alkateak dauden he-
rrietan dena ederragoa ikusteko joera.
Aurreiritzi bat baizik ez da edo gazteta-
ko politizazio gehiegizkoaren ondorioa,
baina ezin izaten dut saihestu. Joaten
naiz Galdakaora edo Durangora edo Elo-
rriora edo, berdin dio, Errezilera, eta iru-

ditu ohi zait txukunago daudela bazte-
rrak, jendea alaiago dabilela kaletik.

Manuel Rivas idazleak kontatzen zuen
Kazetaritza ikasketak bukatu berritan
“El Faro de Vigo” edo horrelako egunkari
batean jarri zutela horoskopoak idazten
eta iragarpen ezin hobeak egiten zizkie-
la irakurleei eta biharamunean alda-
mioan gora igota lanean ari zen langilea
kantuan sumatzen bazuen, pentsatu ohi
zuela bere iragarpena irakurri zuelako
izango zela.

Nire mania ere guztiz infantila da, bai-
na hauteskunde biharamunean alkatea
irabazi dugun herrietan emakume ba-
ten algara entzuten badut edo aldami-
oan gora igotako langilea kantuan, koali-
zioko boto-emailea izango dela
pentsatu ohi dut.

Orain urte asko, urte sasoi hau iriste-
an bizikletak hartu eta Iparraldera joate-

ko ohitura genuen eta ez genuen Larrai-
ne eta Pagola bisitatu gabeko onik iza-
ten, bi herri horietan alkate abertzaleak
zeudela esaten zigutelako. Pagolako Mi-
xel Etxeberren baserrian bi, hiru edo lau
Ricard edan ondoren geure herrian bai-
no euskaldunago sentitzen ginen.

Berriki EH Baik departamentuko hau-
teskundeetako bigarren itzulian atera
zituen emaitzei begira jarri eta 35 bat
herritan atera zuela gehiengoa ikusi
nuen. Seguru nago herri horietan baz-
terrak txukunago eta jendea beste al-
darte batekin sumatuko nukeela bisitan
joango banintz. Espejismo bat dela?
Mania bat? Noski, baietz, baina zer gi-
nateke gu geure maniarik gabe. Gogoa
ematen dit bizikleta hartu eta garai
urrun haietan bezala abiatzeko. Behar-
bada, hori bai, bizikleta elektriko bat
erosi beharko nuke. •

Irten bidera, zoriaren aurka

Nekane
Zinkunegi
Barandiaran

Zorte txarreko zenbakia omen da
hamahirua. Dirudienez, sineske-
riak Bibliako Ebanjelioan du oi-
narria, Jesu Kristoren azken afa-
riko pasartean. Hamahiru gonbidatu
bildu ziren afari hartan, eta batek herio-
tza tragikoa izan zuen. Horregatik egoz-
ten zaio zoritxarra hamahiru laguneko
otordu eta bilkurak egiteari, eta hortik
eratorri da hamahiru zenbakiarekiko us-
te txarra ere. Zorigaiztokoa hamahirua,
erruaren estigmaz inguratu dugu, geure
egiteko moduen ondorioak hari egotzita.

Hori aintzat hartuta, irudikatu zeinen
zorigaiztokoa izango den 13/13 izendatu
duten makrosumarioa. Zenbakia bezala-
xe, errearen estigmak inguratzen ditu
epaiketa horretako auzipetuak. Arantza-
zu Zulueta, Iker Sarriegi, Jon Enparantza,

Julen Zelarain, Naia Zuriarrain, Saioa
Agirre, Nerea Redondo eta Juan Mari Jau-
regi dira. Astelehenean hasiko da haien
aurkako auzibidea, ETArekin harremana
eduki izana leporatuta epaituko dituzte,
eta denera, 77 urteko espetxe-zigor eska-
era egin du fiskaltzak haien aurka.

Abokatu gisa euskal presoan defentsan
lan egiteagatik leporatzen diete ETArekin
harremana izatea. 2010ean atxilotu zi-
tuzten, urte hartan bertan utzi zuen
ETak jarduera armatua. Desegin zenetik,
berriz, bost urte igaro dira dagoeneko.
Beraz, anakronikoa bada, gutxienez, au-
zia. Gainera, auzipetuen defentsaz ardu-
ratuko diren hainbat abokatuk salatu du-
te irregulartasun nabarmenak daudela,
2008. urtetik legez kanpoko entzuketak
jasan zituztelako, atxilotu zituztenean

poliziek bulegoen miaketan sekretu pro-
fesionala urratu zutelako, edo jada espe-
txe zigorra bete duten delitu beragatik
berriz epaitu nahi dituztelako zortzi au-
zipetuetatik lau. Are gehiago, atxilotue-
tako batzuek torturak salatu zituzten,
eta tortura horiek egiaztatu egin ditu,
besteak beste, Paco Etxeberria antropo-
logoak Eusko Jaurlaritzarentzat egindako
txostenean.

Ondorioz, nahikoa arrazoi ditugu
mobilizatzeko. Auzi horren emaitza zo-
riaren esku utzi ordez, gure esku dago-
ena egiteko, konponbidearen alde bide-
ra irteteko. Arrazoi politikoengatik
preso dauden euskal herritarrak gure
artean nahi ditugula eskatzeaz gain,
beste kiderik preso sar ez dezatela al-
darrikatzeko. •



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Ez da fikzioa

Wembley estadioan 60.000 pertsona «God save the queen» abesten entzutean, amaiera iritsi dela edo-
nork sinets lezake. Euforia eta itxaropen besarkadak, arrotza egi-
ten zaidan gertutasunean. Aldi be-
rean, Euskal Herrira joateko larun-
batean daukadan hegaldia bertan
behera uztea oraindik posible dela
gogorarazten dit lagun batek.
30.000 covid kasu egon ziren atzo,
urtarrileko mailetan gaude berriro;
denok etxean geunden orduan, de-
na itxita zegoen. Atzo Boris Johnso-
nek normaltasunera itzultzeko deia
egin zuen, arau zorrotz guztiak ber-
tan behera utziz. Etxean isolatzeko
mezua telefonoan jasotzeak, birusa
edukitzeak, gehiago arduratzen gai-
tu orain. Inkoherentzia izugarriak.
Horiekin eta birusarekin harreman
sinbiotiko batean sartuta gaude, be-
te-betea. Kontrola aspaldi galdu
genuen, horrek ematen duen ziur-
gabetasunarekin.

Beharrezkoak diren proba eta paper guztiak badauzkat. Hamasei hilabeteren zama pisutsua da. Baina kontrolik gabe sentitzen naiz. Ez nago guztiz ziur zein izango den aireportuko protokolo berria. Hizki txikiko klausula guztiak irakurri ditut, baina anbigutasuna iradokitzen duten hainbat esaldi aurkitu ditut. Amesgaizto eszenario asko daude hemen: aireportuan tokatuko zaidan dohakaberen bat, gupidarik gabeko horietako bat, hizki txikidun esaldi horietako baten beste interpretazio bat egingo duena. Eta, hemen esaten duten moduan, «*computer says no*», ordenagailuak ezetz esaten badu?

M-ren ama Parisko St Pancras gel-
tokian zegoen, Londresa zetorren
alaba bisitatzer. Erditzeko unean

haurra galdu zuen duela bi hilabete M-k, eta trauma izugarri horren erdian ezin izan zuen amak bere ondoan egon. Ingalaterra itxita zegoen, ezin zen sartu. Paristik M-ri deitu zion; agidanez paper bat falta zitzaion, bi covid proba eginak zituena eskatzen zuten moduan, baina proba bat egin zuen lekua ez omen zen leku “ofiziala”. Inork ez zion horren berri eman.

Telefonoaren bestaldean ezer egin ezinda frustrazioz zegoen M, eta amak tristuraz telefonoa eskegi zion. Ondorengo ordubetea amarekin hitz egin nahian deika ibili zen baina ez zuen erantzunik jasotzen. Bi orduren buruan, azkenean, erantzun zion. «Trenea nago, baina ez dakit nora noan», izan ziren bere hitzak. M-k ez zuen ezer ulertzen. Zentzurik gabeko hainbat adierazpen egin zizkion. Zerbait

gertatu zitzaion. Amaren alboan zihoan bidaiariarekin hitz egin eta zorionez trenean aurkitu zuten mediku bat eta haren babespean iritsi zen Londresa. M zain zegoen gelto-kian. Ama irribarretsu azaldu zen, egoera normal batean bezala; ez zekien zergatik zegoen han, ez zekien bere alabak haurra galdu berri zuela. Eguraldiaz eta garrantzi gutxiko beste hainbat gauzaz ari zen. Zuze-nean ospitalera joan ziren eta amnesia kapitulu bat diagnostikatu zioten. 24 orduren buruan memoria berreskuratu zuen.

Fikzio istorio bat izan zitekeen hori. Baina, M nire laguna da eta hori bizi izan zuen duela gutxi. Ez dugu inoiz jakingo M-ren amak nola lortu zuen trenean sartzea. Anbigutasun eta inkoherentzien irakurketa positiboa egiten duten batzuk badaudela jakitea itxaropen-tsua da. •



Aireportuak ziurgabetasun gune bihurtu dira eta bidaiariak letra txikiaren beldurrez daude. OLIVAS| AFP

BEHATXULOTIK

Juantxo EGAÑA



JOSE GALLE. NAFARROAKO ERREGE ARTXIBO NAGUSIA

EUSKAL HERRIKO ITZULIA 1930EAN

1930eko irailaren 18tik 21era Euskal Herriko VII. Txirrindulari Itzulia jokatu zen. Bertan, garaiko txirrindulari garrantzitsu gehienek parte hartu zuten. Hilaren 19an Gasteiz-Iruñea etapa korritu zen. Pentsak goizeko 8etan Gasteizen egindako irteeraren berri ematen zuen, baita ibilbide osoan biltzen ziren milaka ikusleen berri ere, bereziki Herrerako mendatean. Pentsak "Barkamenaren aldapa" deitzen zuen portuak ihes egiteko balio izan zion Styl taldeko Ricardo Montero txirrindulariari. Monterok berak, aurreko urtera arte Irungo Real Club Unioneekin korritu zuenak, irabazi zuen etapa. Urte hartan, Erriberriko Mariano Cañardo Styl taldeko txirrindulariak irabazi zuen Itzulia. Bere kirol bizitzan 100 garaipen baino gehiago lortu zituen Cañardok. Beste lasterketa batzuen artean, Frantziako Tourrean parte hartu zuen: seigarren postua lortu zuen 1936an eta etapa bat irabazi 1937an.

Argazkian, Jose Gallerentzat posatu zuten zenbait ikusle eta teknikari ageri dira, irailaren 19ko etaparen amaieran, Mariano Cañardo (ezkerretik bigarrena) eta Ricardo Montero txirrindulariekin batera.

ireki gure leihoa



GAUR8

